ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan
[9. zk.] 2025eko ekaina

NAFARROATIK MUNDURA
Gobernuko Kanpo Ekintzaren II. plana

IALGUI ADI PLAZARA
Bernart Etxepareri omenaldia Nafarroako Parlamentuko aretoan

EUROPAKO HIZKUNTZAK IRUÑEAN
NPLD sareko kideen bilkura Euskarabidearen eskutik

GURE IBAIAK
Nafarroako ibaiak zaintzeko lanak

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
euskarabidea

Fitero, Corella eta Cintruénigo herrien egoera irudikatzen duen irudi kartografikoa, Alhama ibaiarekiko, antzinako presekiko eta auzibideko presa berriarekiko (1630. urtea). Nafarroako Gorte Nagusiko Funtsa, prozesu judiziala, 188018 zk.

Figura cartográfica que representa la situación de las localidades de Fitero, Corella y Cintruénigo con respecto al río Alhama, las presas antiguas y la presa nueva contenciosa (año 1630). Fondo Corte Mayor de Navarra, proceso judicial n. 188018.

ENAP

Euskara Nafarroako
Administrazio Publikoetan
[9. zk.] 2025eko ekaina

Koordinatzailea:
Euskara Administrazio Publikoetan
Garatzeko Zerbitzua
(Euskarabidea)

Kolaboratzaileak:
Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua,
Komunikazio Zerbitzua,
Osasunbidea,
Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia,
OREKAN, UEMA,
NPLD, Euskaltzaindia
Nafarroako Parlamentuko prentsa zerbitzua

Diseinua: cobo-munarriz.com
Azaleko argazkia: Adimen artifizialarekin sortua
Irudiak: Freepik
Argazkiak: Euskarabidea

ENAP aldizkarian argitaratutako artikuluak
berridatz daitezke bai osorik, bai zatika,
baina artikuluak nondik atera diren aipatu
behar da beti.
ENAP aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 2697-0988

Egilea: Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua
Paulino Caballero 13
31002 Iruña
Tel. 848 42 60 54
www.euskarabidea.es

AURKIBIDEA

4–6 Elkarrizketa:
Josu Elso.

7 Gobernutik:
Zeladoreen gida.

8–9 Erreportajea:
Nafarroaren kanpo ekintza.

10 Parlamentutik:
Bernart Etxepareri omenaldia.

11 Udaletatik:
Arnasguneak.

12–13 Euskarabidetik:
NPLD jardunaldiak Iruñean

14 Hiztegi terminologikoa:
Biodibertsitatea.

15 Ohar historikoa:
Blas Fagoaga.

✱ Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena euskarabidea@navarra.es helbidera.

Nafarroako ibaiak

Nafarroako bioaniztasunaren kontserbazioa gure etorkizunerako beharrezkoa da eta hori oso argi du Josu Elsok. Biologoa da Josu, eta OREKAN enpresa publikoan egiten du lan, ingurumen erronka berriei aurre egiten: klima aldaketa, lurraldearen biodibertsitatearen galera saihesteko beharra, naturagune babestuen eremuen kudeaketa edo ibaiak lehengoratzen laguntzen.

Zeri buruz ari gara Nafarroako biodibertsitateari eta bere babesari buruz hitz egiten dugunean?

Biodibertsitatea bizitzaren aniztasuna da, lurraldean dauden izaki bizidunek elkarren artean eta ingurunearekin ezartzen dituzten harremanak. Aniztasun hori aurkitzen garen eskualde biogeografikoaren araberakoa da, horietako bakoitzak klima ezaugarri desberdinak baititu eta, beraz, baldintza berezi horietara egokitu diren izaki bizidunak bizi dira bertan.

Nafarroak izugarrizko aniztasun biologikoa du bere posizio geografikoagatik, non hiru eskualde biogeografiko (Alpetarra, Atlantikotarra eta Mediterraneotarra) bat egiten duten. Horren ondorioz, gurea bezalako lurralde txiki batean animalia eta landare desberdin ugari aurki ditzakegu. Horregatik, Nafarroan Pirinioetako pagadietatik Bardeako larre gazietaraino hedatzen den landaredia bezain desberdina aurki dezakegu. Edo mendi garaietara egokitu diren hegaztiak, basoilarra adibidez, eta estepak nahiago dituzten beste batzuek ere, Nafarroan bizi dira.

Biodibertsitatea gure lurraldearen aberastasunaren parte da eta pertsonen osasunarekin eta ongizatearekin oso lotuta dagoenez, gure garapen sozial eta ekonomikoaren oinarrietako bat da. Biodibertsitate horrek guztiak bizirik irautea lortu behar dugu, beraz, nafar guztiok dugun erronka da. Biodibertsitatearen kontserbazioak aberastasun hori babesteko beharrezko ekintzak egitea dakar, giza jardueren eragina gutxituz. Beharrezkoa da giza garapenerako eta ongizaterako ekosistemen zerbitzuei balioa eta garrantzia ematea, eta horrela, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzako onura jasangarriak lortuz.

OREKAN sozietate publikoan zer lan egiten duzue?

OREKAN sozietate publikoa denez, Nafarroan ditugun erronka berriei aurre egiteko prestatzen laguntzen du: klima aldaketa, biodibertsitatearen galera geldiarazteko beharra, natur baliabideen kudeaketa integrala eta babestutako eremu naturalak kudeatzea, Nafarroako basogintza estrategia edo Ekonomia Zirkularrarena sustatzen egiten dugu lan. Gure jarduerak ingurumenaren kudeaketarekin lotutako hainbat alor hartzen ditu: proiektuen erredakzioa, kudeaketa eta exekuzioa; naturaren babesarekin, kontserbazioarekin, hobekuntzarekin eta mantentzearekin lotutako obra eta zerbitzuen kontratazioa; hondakinen politika; eta abar. Gure helburua Nafarroan ingurumena babesten eta hobetzen laguntzea da, informazio eta ezagutza maila altua mantenduz, plan, programa, proiektu eta ekintzen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa eginez.

Zuk "Kantauribai" proiektua zuzentzen duzu. Zertan datza?

Biodibertsitatea hobetzea helburu duen proiektu bat da. LIFE KANTAURIBAIk Bizkaiko golkora isurtzen diren eta Nafarroak, Gipuzkoak eta Akitaniak partekatzen dituzten 5 ibaietan ibai-ekosistemari lotutako espezie eta habitaten kontserbazio-egoera hobetzea du helburu: Bidasoa, Oria, Urumea, La Nive (Ugarana) eta La Nivelle (Luzaide). Ibai hauek guztiek arazo berdinak jasaten dituzte, batez ere oztopoen presentziaren ondoriozko zatiketa, gehien bat presak, eta jarduera antropikoek (zentral hidroelektrikoak eta errepideak) edo espezie exotiko inbaditzaileak eragindako espezieen hilkortasuna. Arazo hauek ibai-ekosistemari lotutako espezie eta habitatek kontserbazio-egoera ona lortzea eragozten dute. Hori dela eta, KANTAURIBAIk konponbide gisa ezartzen du ibai-konektibitatearen berrezarpen ekologikoa eta hilkortasun-kausak ezabatzea: ibai-oztopoak ezabatzen; haltzadiak lehengoratzen; izokin, bisoi europarra eta Pirinioetako desmanen hilkortasun-arrazoi nagusiak murrizten eta espezie inbaditzaileak kontrolatzen. Gainera, parte hartzen duten hiru eskualdeetako administrazioen arteko loturak hobetu nahi ditu, kontserbazio-ekintzak modu koordinatuan egin ahal izateko, eta horrela proiektuaren eremu osoan biodibertsitatea hobetzen.

Ibaien biodibertsitateari dagokionez, izokinak oso garrantzistuak dira. Zergatik?

Izokina ibaietako espezie enblematiko bat da eta ibai guztietan presente dagoena. Ibaiaren "errege"tzat hartzen da, batez ere gure ibaietan aurki daitekeen bertako arrain handiena delako. Baina baita ere haien bizi-zikloaren berezitasunagatik, jaiotzen diren ibaitik Ipar Atlantikoko itsasoetara milaka kilometroko migrazioak egiten ditu, urte bat edo bi geroago jaio ziren ibaira berriz itzultzeko. Horregatik seguruenik izokinaren balioa bere balio ekologiko hutsetik haratago doa, izan ere, espezie honi loturiko tradizio eta miresmen kultural osoa baitago presente dagoen herrialde guztietan. Eta Bidasoa ibaiaren ingurua ez da salbuespena, historian zehar familia askorentzat bizibide iturri izan baita.

Hala ere, espeziearen egoera oso kezkagarria da gaur egun. Mundu mailan, hamarkadak daramatzagu izokin-populazio guztien tamainaren beherakada ikusten, batez ere gehiegizko arrantza eta haien ekosistema naturalaren aldaketaren ondorioz, uraren kutsadura, oztopoen presentzia eta, azkenaldian, klima-aldaketaren eragina barne.

ELKARRIZKETA

Zein da gaur egun izokinen egoera Nafarroako ibaietan?

Nafarroan, nahiz eta modu kezkagarrian bizi dugun, izokin-kopuruaren beherakada beste eskualdeetan baino txikiagoa izan da, urte askotan habitata hobetzeko egindako lanei esker. Uraren kalitate eskasaren ondorioz sortutako arazoak saneamendu planen bidez konpondu ziren, eta Nafarroako Gobernuak Bidasoan ezarritako harrapaketa-kopuruaren murrizketek eta ibaia leheneratzeko politiken ondorioz, azken urteotan izokina aspaldi ikusi gabeko tokietara itzultzea ahalbidetu dute, Elizondora edo Urdazubira esaterako. Nafarroako biztanle guztiak oso harro egon behar dugu horrelako espezie berezi batek gure ibaietan bizitzen jarraitzen duelako.

Baina hala ere, Bidasoko izokin populazioak arriskuan jarraitzen du eta gaur egun duen erronka handienetako bat klima aldaketa da. Espeziearen kokapenaren mugan gaudenez (hegoalderago, izokinak ez du jada bizirauteko baldintza egokirik aurkitzen), Iberiar penintsulako populazioak dira berotze globalaren ondorioak lehen jasaten dituztenak. Eta haren ondorioak bereziki nabariak izan dira azken urteotan udan, euri falta eta tenperatura altuek ibaian baldintza ezegokiak sortzen dituzte izokinen bizitzarako.

Eta orokorrean zer erronkari aurre egin behar diete gure ibaiek?

Ibaiek eta biodibertsitateak Nafarroan aurre egin behar dieten erronkak ez dira mundu mailan aurre egin behar dituztenen desberdinak, eta horrela laburbil daitezke; giza ekintzek ingurumenean duten eraginari aurre egitea bizirik irauten saiatzeko. Gizakiak naturari egiten dion presioaren ondorioz, habitatak suntsitu, kutsatu, gehiegi ustiatu, klima aldatu eta espezie inbaditzaileak hedatzen dira, biodibertsitatea gizadiaren historian aurrekaririk gabeko erritmoan murrizten ari da. Gaur egungo espezieen desagerpen-tasa, azken hamar milioi urteetako batezbestekoa baino hamar edo ehunka aldiz handiagoa da eta bizkortzen jarraitzen du. Beraz, desagertze-tasa hori berandu baino lehen geldiaraztea eta gure bizimodurako irtenbide iraunkorrak ahalik eta azkarren ezartzea beharrezkoa da. Biodibertsitatearen etorkizuna gure esku dago, eta egungo erabakiak funtsezkoak izango dira datozen urteetan espezieak ingurumenarekin nola biziko diren zehazteko.

Euskara eta biologia. Nola uztartu? Posible al da biologiaren arloan euskaraz lan egitea?

Noski. Gure lanaren zati garrantzitsu bat ingurune naturalaren bilakaerari buruzko herri jakinduria eta ezagutza historikoa erabiltzea da. Horregatik, biologoak harreman estuan gaude lurraldearekin eta bertan bizi diren pertsonekin, eta badira Nafarroan euskarazko komunikazioa ezinbesteko duten eremuak. Hortaz, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio euskarazko dibulgazio zientifikoari, maila teknikoan nahiz informatiboan, eta horretarako bide espezializatu berriak sortu dira. Kanal hauetan parte hartzeak gure lana eta helarazi nahi dugun mezua zabaltzen laguntzen digu. Azkenik, gogoratu behar da, Nafarroako Foru Komunitatearen barruan lan egiten dugun arren, biodibertsitateak ez dituela muga administratiboak ezagutzen. Horregatik inguruko lurraldeekin harreman estua mantentzen dugu informazioa trukatzeko eta ekintzak koordinatzeko, beraz, euskarazko komunikazioak gauzak asko errazten dizkigu.

Entrevista a **Josu Elso**, **biólogo** de la sociedad pública **OREKAN**, sobre el cuidado de la **biodiversidad** en los **ríos** de **Navarra**

GOBERNUTIK

Zeladore lanak egiten dituzten profesionalei zuzendutako argitalpena

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin lankidetzan, eta bere Hizkuntza Planaren esparruan, zeladore lanak egiten dituzten langileei orientazio gida bat eman die, Nafarroako herritarrei euskaraz zein gaztelaniaz ematen zaien arreta hobetzeko.

"*Zeladoreak euskaraz*" izenburupean, gidan pazienteen, senideen eta osasun langileen artean zentroetan gertatzen diren ohiko elkarreraginak jasotzen dira, hala nola ospitaleratu aurreko elkarrizketak, ospitaleratzean edo pazienteak mugitzerakoan. Medikuntza eta osasun kontzeptuen hiztegi terminologiko oso bat ere badu. Gehienak euskarazko oinarrizko esamoldeak eta hitzak dira, eta, beraz, ez da beharrezkoa aldez aurretik hizkuntza hori jakitea erabili ahal izateko.

Gaur egun, euskaraz jakinda ere, askotan gaztelaniaz artatzen da paziente euskalduna. Osasun-hiztegia ez ezagutzea, ohiko elkarrizketak egiterakoan segurtasunik ez izatea, erratzeko beldurra, ohiturarik eza edo lotsa egon daitezke. Horregatik, eskuliburu honek kalitatezko arreta euskaraz ere eskaini nahi duten langileei laguntzeko tresna izan nahi du.

"*Zeladoreak euskaraz*" Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuaren Hizkuntza Planaren barruan argitaratutako hirugarren gida da. Lehenengoa lehen mailako arretako profesionalentzat zen, eta bigarrena erizainentzako hiztegian zentratu zen. Zeladoreentzako azken gida horrek, gainera, mugikorrerako bertsioa ere badu, erabilera errazteko.

***Osasunbidea** ha editado una **guía** de atención **bilingüe** para **Celadores**.*

Gobernuak Kanpo Ekintzako II. Plana onartu du Nafarroak nazioartean duen posizioa sendotzeko

Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia 2019an sortu zen, 2019-2023 legealdi berriarekin batera (honen aurrekari gisa, 2015-2019 legealdian Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritza sortu zen). Bi legealdi daramatza Zuzendaritza Nagusi honek eta bi Zerbitzu dituzte: Europako Proiektuen Bulegoaren Zerbitzua eta Eskualdeen arteko Lankidetzaren eta Kanpoko Herritarren Zerbitzua. Nafarroako Gobernuko Departamentu guztiei aholkularitza eskaintzen diete Europako Proiektu eta dirulaguntzen gainean. Egoitza nagusia Iruñean dute, baina, horretaz gain ere, Bruselan beste egoitza bat dute; izan ere, bertan hartzen diren erabaki askok Nafarroan eragin nabarmena dute.

Nafarroa mugaz gaindiko lurraldea da, mugak batzuetan oztopo izan daitezke, baina beste batzuetan, aukera berriak sortzeko gune ere izan daitezke. Europako proiektu ezberdinen bidez, elkarlana eta topaketa guneak sortzen dira. Hainbat sare sortu dira horren ondorioz, eta Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiak hainbatetan parte hartzen du. Horietako bat, esate baterako, Euroeskualdea (Euskadi, Akitania eta Nafarroa) da; sare honetan hiru eskualdeetako proiektuak garatzen dituzte, eleaniztasuna, garraioa edota hezkuntza dira lan ildo nagusiak. Bestetik, Pirinioetako Lan Elkartea edo CTPn (Akitania Berria, Okzitaniako eskualdeak, Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Andorrako Printzerria) parte hartzen dute. CTPren helburua, Pirinioen garapena sustatzea da, erronkak kontuan izanda eta indarguneak baliatuta. CTPk hiru hamarkada baino gehiago daramatza Pirinioetako lurraldeen eta eragileen arteko trukeak sustatzen, arazo komunei konponbide partekatuak bilatzen eta mugaz gaindiko ekintzak abiarazten. POCTEFA (INTERREG VI-A Espainia-Frantzia-Andorra programa) dirulaguntzen kudeaketa, adibidez, elkarte honi dagokio.

Beste alde batetik, Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunetako bat, atzerrian bizi diren Nafarrekiko harremana sustatzea da; Kanpoan diren Herritarrekiko Harremanetarako Atala horretaz arduratzen da. Nafarroako diasporarekin lan egiten da unitate honetan eta Elkarteek eta mundu digitalak garrantzi handia dute hartu-emanean.

Kanpo Ekintzako II. Plana

Nafarroako Gobernuak Kanpo Ekintzako II. Plana (2025-2028) onartu du maiatzean. Plan horren helburua Nafarroak nazioartean duen posizioa sendotzea da, Europarekiko konpromiso argia, mugaz haraindiko bokazioa eta Komunitatetik kanpo dauden herritarrekiko harremana areagotzea mundu globalizatu batean. Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollok departamentuen arteko 2025-2028 aldirako plangintzaren oinarrizko ildoak azaldu zituen; planak 34,3 milioiko aurrekontua du.

Dokumentuak 136 ekintza biltzen ditu, hiru ardatzetan banatuak. Neurri horiek aberastu egin dira Gobernu Irekiaren bidez eta eragile sozioekonomiko eta instituzionalekiko harremanen bidez, parte-hartze prozesu batekin. Plan honen helburua da Foru Komunitateak azken hamarkadan Kanpo Ekintzako I. Planarekin (2021-2024) lortutako partaidetzan eta nazioarteko proiekzioan emandako aurrerapausoa sendotzea. Plan hori oinarritzat hartu da, eta tresna berri honen abiapuntutzat hartu da haren balantzea ere.

Plan berriaren helburu nagusia da Foru Komunitateko kanpo ekintza planifikatzea, koordinatzea, bultzatzea eta ikusaraztea, Foru Gobernuko beste departamentu batzuekin lankidetzan, Nafarroa Europa eta nazioarte mailan eragile global eta bereizi gisa kokatuz. Helburu orokor hori hiru ardatz nagusitan banatzen da.

Lehenengoak "Nafarroa Europan" du ardatz, eta "Nafarroak Europar Batasunean duen presentzia indartu nahi du, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin lankidetzan, Europako kide izatearen sentimendu horretan herritarrak sartuz".

Bigarrenak, "mugaz gaindiko Nafarroa" izenekoak, helburu nagusi hau du: Europako lurralde-lankidetzaren potentzial guztia errentagarri bihurtzea, Foru Komunitatearen kokapen geografiko pribilegiatua aprobetxatuz, eta berezko izaera ezartzea Nafarroa partaide den foro eta espazioetan, bereziki Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen (2024-2026) eta Pirinioetako Lan Elkartea (CTP) (2025-2027) lehendakaritzekin, baina baita Pirinioetako mugako beste laguntza deialdi, proiektu partekatu eta erakunde, gizarte eta merkataritza lotura askorekin ere.

Azkenik, "Nafarroa globalaren" ardatzak kanpoko nafar herritarrekiko arreta eta harremana hobetu nahi ditu, baita eskualdearen irudi erakargarria, anitza eta garaikidea ezarri ere, diasporarekiko harremanei dagokienez, bai itzuli nahi dutenekiko –prozesu horretan Gobernuak bideratzaile gisa jarduten du–, bai atzerrian jarraitzea aukeratzen dutenekiko, departamentuak bere komunitatearen errealitatean informazio eta parte-hartze maila handiena eskaintzen baitie, Nafarroako herritar gisa eskubide berberak izan behar dituztela ulertuz. ■

*El Gobierno de Navarra ha presentado su **II Plan de Acción Exterior.***

PARLAMENTUTIK

Danserie Ensemble talde iruindarrak Bernat Etxepareren obran oinarritutako kontzertua eman zuen Parlamentuan, 2024ko Nafarroaren Egunaren baitan

Gogora dezagun Bernat Etxepare idazle nafarra izan zela, eta hark idatzi zuela euskarazko lehen liburu inprimatua, *Linguae vasconum primitiae* izenburuarekin. Bordelen plazaratu zen liburua 1545ean.

Bada, *Euskararen Nazioarteko Eguna* zela aprobetxatuta, Bernat Etxepare ekarri zuten Nafarroako Parlamentura haren hitzei jaramon eginez, hark hau adierazi baitzuen euskarari buruz: "Heuscara ialgui adi campora. Ialgui adi mundura."

Hala, Nafarroako Parlamentuak amaiera eman nahi izan zion 2024ko Nafarroaren egunari eta Euskararen Nazioarteko egunari, Etxeparek idatzitako Linguae Vasconum Primitiae obran oinarritutako musika emanaldi baten bitartez, Danserie Ensemble taldearen eskutik.

Hori guztia egin ahal izan zen Bernat Etxepareren obraren eta figuraren inguruan egindako ikerketa lanaren ondorioz, zeinaren bidez haren obrako poemak musikatu diren. Horrezaz gain, emanaldiaz gain, disko-liburua editatu dute Pamiela argitaletxearen bitartez.

Ekitaldia Parlamentuaren egoitzako atalondoan egin zen. Parlamentuko lehendakari Unai Hualderen diosal-hitzen ondoren, Danserie Ensemble taldearen kontzertua etorri zen. Kargudun hautetsi ugari bildu ziren bertan, bai eta gizarte zibileko hainbat erakunde, elkarte eta kolektibotako ordezkariak ere. Guztira hirurehun bat pertsona izan ziren kontzertuan.

Danserie Ensemble taldearen emanaldiak 70 minutuko iraupena izan zuen eta 16 piezaz osatuta izan zen, sortu ziren garaiko (1545) berezko soinuekin musikatutako Etxepareren 16 poema.

Iruñeko taldea da Danserie Ensemble eta 1999an ekin zion bere ibilbideari. Taldeak XVIII. mendea baino lehenagoko musika ikertzen eta interpretatzen du, irizpide historikoen arabera, idatzizko iturrietara eta musika tradizionalean irauten dutenetara joz, eta, era berean, garai hartako musika tresnen kopiak erabiliz.

Partaideen artean nabarmendu litezke, besteak beste, Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udala, Eusko Legebiltzarra eta Euskaltzaindia. ■

*Concierto en homenaje a **Bernat Etxepare** en el Parlamento de Navarra.*

UDALETATIK

Euskararen arnasguneak

Edozein hizkuntza gutxituren indarberritze prozesuan hiztun dentsitate handiko guneek, euskararen kasuan arnasgune deitu direnek, izaera berezitua dute, eta ekarpen esanguratsua egiten diote indarberritzen ari den hizkuntzari.

Azken sei urteetan zehar Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMAren), Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren (HPSren) artean sendotu den lankidetzaren emaitza da arnasguneen definizioa eta lan ildoen zehaztapena.

Eguneroko mintzajardun arruntetan bertakoen artean euskara nagusitzen den gune soziogeografikoak (auzoa, herria, herrixka, eskualdea, harana...) dira arnasguneak, zeinetan herritarrek beren egunerokoan, gunean bertan dituzten komunikazio harremanak (oinarrizko beharrei lotuak, familiakoak, lagun artekoak, sozialak, administratiboak, eskola girokoak, ekonomikoak...) nagusiki euskaraz garatzen dituzten. Bertako hiztunen hizkuntza gaitasunari erreparatuta, gehienek euskara dute errazen/ongien erabiltzen dakiten hizkuntza.

Arnasguneetan euskara belaunez belaun transmititzen ohi da familia gehienetan (gurasoen eta haurren artean); eta euskaraz mintzatzeko arau sozialak du indarra bertakoen arteko gizarte harreman ohikoenetan (helduen artean, haurren artean...). Horren guztiaren ondorioz, gizarte integrazioa euskara ikasi eta erabiltzearekin harreman estuan dago.

Arnasguneekiko erronken artean daude ahozko komunikazioa lantzea ikastetxeetan, euskara ikasteko aukerak erraztea arnasguneetan bizi direnei, etorri berriei zuzendutako harrera plan integralak aurreikusi eta planifikatzea edo lan munduan ere euskararen erabilera sustatzea.

Nafarroan badaude arnasgune diren hainbat udalerri, Arantza, Areso, Baztan, Bera, Etxalar, Goizueta edo Igantzi, esate baterako. ■

*Municipios navarros se suman a la iniciativa **Arnasa Gara**, sobre zonas de **revitalización del euskera.***

NPLD sarearen urteko asanblada Nafarroan

Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sareak (NPLD) ehun aditu inguru bildu ditu Iruñean, eta hizkuntza gutxituentzako bizitasun handiko eremuen garapen jasangarria izan dute ardatz; honetaz gain, zuzendaritzaren erreleboa adostu dute.

Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen urteroko topaketak hainbat ekitaldi izan zituen maiatzaren 7tik 9ra, Euskarabidea anfitrioia izan zelarik. Sare horrek Europako hizkuntza gutxituetan adituak diren ehun bat pertsona bildu zituen. Oraingo honetan, anfitrioia Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua izan zen, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez, eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten 2025. urteko konferentziarako, "Hizkuntza gutxituentzako bizitasun handiko eremuen garapen jasangarria" izenburupean. Halaber, ekitaldiak asteazkenean hasi ziren, hilak 7, harrera instituzional batekin, Nafarroako Jauregian; 8an, jardunaldi tekniko bat egin zuten, eta ostiralean, hilak 9, jardunaldi ireki bat, egitarau zabalarekin.

Ekitaldi horretan, Europa osoko arduradun politikoak, ikertzaileak eta profesionalak bildu ziren, esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko. Era berean, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA), Gales eta Irlandako gobernuetako, Ladin institutu kulturaleko, Leitza eta Arantzako udaletako eta Euskarabideko ordezkariak izan ziren bertan. Hitzaldiak gaztelaniaz, euskaraz, frantsesez eta ingelesez entzuteko aukera izan zen.

Maddi Dorronsoro, European Center for Modern Issueseko (ECMI) ikertzailearena izan zen irekiera-hitzaldia, "Hizkuntza gutxituak eta eguneroko esperientzien definizioaren bizitasun handiko arloak" gaiarekin. Bigarren hitzaldia, Miren Segurola UEMAko ordezkariak eman zuen, "Arnasguneak: euskara biziberritzeko funtsezko arloak" gaiaren inguruan.

Jardunaldiak “kasuen panel” batekin aurrera egin zuen. Hala, Sabrina Rasom-ek (Istitut Cultural Ladin Majon di Fascegn, Trento probintzia autonomoko Fasa harana, Italia) "Ibar ladinoak laborategi multikultural gisa" gaiaren azalpenarekin; Galesko Gobernuko Simon Brooks-ek "Galesko hizkuntza-garrantzi handieneko eremuak" gaiarekin; University of Wales Trinity Saint David-eko Elin Haf Gruffydd Jones-ek "Komunitate hizkuntzaren biziberritzea: Prositec BRO-ren kasua"; UEMAko Irati Odriozola eta Leitzako euskara teknikari Kristina Urrutia "Euskara eta kulturartekotasuna Leitzan” gaiari buruz aritu ziren; UEMAko eta Arantzako Udaleko Goizane Aranak eta Leire Mitxelenak "Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa: Arantzako Hirigintza Planaren azterketa" gaia landu zuten; eta Irlandako Gobernuko Eoin Ó Droighneáin-en "Irlandako hizkuntza plangintzako prozesua: Gaeltacht-en (irlanderazko eskualdeak) bizitasuna babestea" izan zen azken hitzaldia.

Ana Ollo lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak harrera ofiziala egin zien Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan NPLDko kide guztiei, herrialde, eskualde eta erakunde horietako hizkuntza gutxituak dituzten lurraldeetatik etorritakoei. Europako 15 gobernuk, 25 erakundek, elkarteek eta unibertsitateek osatzen dute sare hori.

Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarea (NPLD)

Gogoratu behar da Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen helburua Europan hizkuntza aniztasuna sustatzea dela, maila guztietan informazioa eta esperientziak partekatuz, aniztasun hori errazago ulertzeko eta nazioartean aitorpen handiagoa lortzeko.

Nafarroako Gobernua 2010etik da NPLD-ko eskubide osoko kidea, eta Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren bidez parte hartzen du Sarearen jardueretan. Estatuetako eta eskualdeetako gobernuekin lan egin ohi du lan saioetan, bai eta hizkuntza plangintzan diharduten beste erakunde batzuekin ere. Sare horretan Europa osoko erakundeak daude ordezkatuta, hala nola tokiko agintariak, ikerketa zentroak, unibertsitateak eta gobernuz kanpoko erakundeak.

Nafarroako Gobernuarekin batera, eskubide osoko kide dira Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Kataluniako Generalitatea, Valentziako Generalitatea, Balear Uharteetako Gobernua eta Galiziako Xunta. Eta Europa mailan, Galesko Gobernua (Llywodraeth Cymru) eta Frisiakoa (Provinsje Fryslân), besteak beste.

La red Europea para el fomento de la diversidad lingüística NPLD ha celebrado su asamblea anual en Pamplona / Iruña.

HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

BIODIBERTSITATEA / BIOANIZTASUNA.....BIODIVERSIDAD

Altitudea..... Altitud
Animalia..... Animal
Arkeoa..... Arquea
Arraina..... Pez
Bakterioa..... Bacteria
Belarjalea..... Herbívoro
Bioma lurtarra..... Bioma terrestre
Bioma urtarra..... Bioma acuático
Biosfera..... Biósfera
Biotopoa..... Biotopo
Biozenosia..... Biocenosis
Bizkarroitasuna..... Parasitismo
Deskonposatzailea..... Descomponedor
Detritujalea..... Detritívoro
Domeinua (biologia)..... Dominio (biología)
Ekoizlea..... Productor
Ekologia..... Ecología
Ekosistema..... Ecosistema
Ekuatorea..... Ecuador terrestre
Elikagaia..... Alimento
Erreinua (biologia)..... Reino (biología)
Eukariotoa..... Eucariota
Faktore abiotikoak..... Factores abióticos
Faktore biotikoak..... Factores bióticos
Fauna..... Fauna
Flora..... Flora
Fotosintesia..... Fotosíntesis
Habitata..... Hábitat
Haragijalea..... Carnívoro
Harraparitza..... Depredación
Hegaztia..... Ave
Hezetasuna..... Humedad
Intsektujalea..... Insectívoro
Izaki biziduna..... Ser vivo
Kate trofikoa..... Cadena trófica
Klima epela..... Clima templado
Klima kontinentala..... Clima continental
Klima lehorra..... Clima seco
Klima polarra..... Clima polar
Klima tropikala..... Clima tropical
Komentsalismoa..... Comensalismo
Konposatu inorganikoa..... Compuesto inorgánico
Kontsumitzailea..... Consumidor
Kromista..... Cromista
Landarea..... Planta
Latitudea..... Latitud
Lurzorua (lurrazala)..... Suelo (corteza terrestre)
Narrastia..... Reptil
Onddoa..... Hongo
Orojalea..... Omnívoro
Ozono geruza..... Capa de ozono
Populazioa..... Población (biología)
Prezipitazioa (meteorologia)..... Precipitación (meteorología)
Prokariotoa..... Procariota
Protistoa..... Protista
Saprobioa..... Saprófito
Segida ekologikoa..... Sucesión ecológica
Sinbiosia..... Simbiosis
Taxona..... Taxón
Ugalketa..... Reproducción (biología)
Ugaztuna..... Mamífero

OHAR HISTORIKOA

Blas Fagoagaren biografia

Baztango Udalaren eskariz eta Euskarabideak Euskaltzaindiarekin duen hitzarmenaren barnean ondu dute Andres Iñigo eta Paskual Rekalde euskaltzainek Blas Fagoaga irakasle, euskaltzain urgazle eta euskaltzale porrokatuaren biografia: ***Blas Fagoaga Ariztia. Irakaslea eta euskaltzaina.***

Biografiaren xederik behinena Fagoagaren lana ezagutaraztea eta balorean paratzea: XX. mendearen hasmentan eta hirugarren hereneraino euskararen alde egindako lana ezagutzeko eta egin zuen ahalegina erakusteko eta aitortzeko; euskararen garairik ilunenetan ere, haren kemenari esker, euskarari arnasa ematea erdietsi baitzuen Fagoagak.

IRAKASLEA IRUÑEKO SEMINARIOAN

Fagoagak ibilbide luzea egin zuen irakasle lanetan, 1929an irakasle izendatu zutenetik 1966ra arte. Hasierako urtetan, eskola ordu dezente zirenean, hizkuntza irakasten aritu zen, eta azkeneko urtetan, 1957tik aurrera, mugak eta ordu gutxi ezarri zirenean, Fagoagak euskara Nafarroako ondare historiko eta kulturalaren ikuspegitik azaldu zien bere ikasleei.

EUSKARA IKASTEN HASTEKO HIZTEGIA

Fagoagak irakaskuntzan egin zuen ahaleginik handiena berak prestatutako hiztegia ("Iniciación al estudio del euskera. Breve diccionario etimológico de apellidos toponímicos, etc. fáciles de retener") ikasaraztea izan zen, Andres Iñigok aitortzen duen bezala: «Hiztegi horrek 1.500 sarrera inguru zituen, batik bat toponimoak eta deiturak, eta neurri txikiagoan hitzak eta esapideak. Hiztegi horren bidez helburu bikoitza lortzen zuen: batetik, ikasleei ikusaraztea beren familietako deitura nahiz beren herrietako toponimo aunitz euskal sustraikoak zirela (erraterako: Arana, Arregui, Eseverrri, Gorri, Labeaga, Landibar, Sarasate, Urederra, Zabala...). Bestetik, gaztelaniaz entzun eta beren herri-etxeetan modu arruntean erabiltzen zituzten zenbait hitz euskararen ondarekoak zirela, hala nola aida, esti, akelarre, alchirria, axunes, charro, ezten, ondarras... bai eta esapideak ere: gabon, eskerrik asko, mutiko alai...».

TESTU ZAHARREN ARAKATZAILEA

Gerra zibilaren ondoren, urte batzuez ez zen euskararik irakatsi. Ondoren, 1948tik aitzina, astean ordubetez bakarrez irakatsi zen. Orduan, arestian aipatu bezala, Fagoagak euskara Nafarroako ondare historiko eta kulturalaren ikuspegitik azaldu zien Seminarioko ikasleei. Hizkuntza ongi irakasteko betarik ez zegoenez gero, artxiboetako agirietan eta testu zaharretan aurkitu zituen lekukotasunen bidez azaldu zien ikasleei euskarak Nafarroan izan zuen hedadura eta mendez mendeko murrizketa; konparazio baterako, XVI. mendean euskaraz egin ohi ziren ezkontza kontratuak edo Erdi Aroaz geroztik herrietan erabili ohi ziren euskarazko toponimo eta antroponimoak.

EUSKAL LITERATURAREN ETA IKERTZAILEEN BERRI ERE ERAKUSTEN ZUEN

Fagoagak euskal literaturaren izen esanguratsuen berri ematen zien ikasleei, baita zenbait ikertzailerenak ere, hala nola Azkue, Campión, Garibai, Lacombe, Lekuona, Mitxelena, Moret, Bonaparte...

Hark utzi zigun ahaztu behar ez genukeen ikasbide interesgarria: izan ere, euskararentzat oso zailak ziren garaietan, zeuden aukera apurrak eta zirrikituak baliatu baitzituen euskara sustatzeko eta euskararekiko sentsibilizazioa bultzatzeko. ■

Euskaltzaindia** ha editado un libro sobre la vida y aportaciones al euskera del navarro **Blas Fagoaga.

Mahairako edo arropan jartzeko identifikatzaile bat nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

plangintza@navarra.es

Anima zaitez ENAP aldizkariaren hurrengo zenbakietan parte hartzera, zure ekarpenak eskertuko ditugu!

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

euskarabidea